


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Urriak 11, 121. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



ENRIKE ALONSO
Talde berria
denboraldi
berrirako

Ehiza eztabaidan

Gauza naturala ala naturaren aurkakoa?



HOTZ-BERO

KLIMATIZAZIOA

Maalako Errabala, 33 etxebehea
ARRASATE

Tfnoak: 79 70 98 eta 77 04 83

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

SUKALDARITZA



SEXUALITATEA

Emalea: Arantxa Lizaso "Plan Mondragón"-en elikadura arloko partaidea

Praktikoa: M^o Tere Altuna (Sukaldaritza)

Urriak 8: Izozketa eta desiozketa

Arrats. 3retan



SUKALDARITZA

Emalea: Mari Tere Altuna sukaldari ezagua

Urriaren 15etik Abenduaren 10erarte

Matrikula 1000 pta

Izenuatea aurrez AEDn

Arratsaldeko Getatik 9etara

Prestatutako jakiak bertan
zozketatuko dira.



ANTOLATZAILEA: AEDko "Ekin" Erakunde taldea.

Emalea: Amaia Vázquez

Urriaren 10ean / Arrats. 3retan

Sexualitate ikastaroa

"Sexualitatea norberaren bizipenetatik"

5 saiotan

Matrikula mugatua izango da.



AKTIBITATEAK 91-92 GAZTE ETA NAGUSIENTZAT



Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruak



Goizez: • Gimnasia

Bazkalostean: 3.30etatik aurrera

- Eskulan tailerra
- Puntu eta gakorratza
- Euskara
- Kultura orokorra
- Filosofia
- Sukaldaritza
- Tapiza eta makramea
- Jantzigintza
- Psikologi ikastaroa
- "Análisis transaccional" ikastaroa

Arratsez: 6.30etatik aurrera

- Buztingintza
- Eskulan tailerra
- Sukaldaritza
- Sexualitate-ikastaroa gazteentzat
- Marrazki eta pintura
- "Análisis transaccional" ikastaroa
- Elikadura, kontsumoa eta osasuna
- Psikologia-hezkuntza pertsonala

Gazte eta nagusientzat

INFORMA ZAITEZ!!

Hasiera urriaren 7an

Santa Teresa, 12 ARRASATE Tfnoa: 79 04 59 (Arratsaldeko 3.30etatik aurrera)

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Leguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Iñaki Galdos

Publizitatea eta harpidetzak:

Amala Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitakoan, ASA
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Elikadura eta osasuna

Esan dezadan, hasteko, denak ez duela ilun eta ezezkor izan behar. Sarri aipatu den bezala, bizitzen ari garen sasi-garapen honen akatsik nabarientakoa zientziakeria baldin bada ere, sasi-garapen horrek urrats aurrerakoak emateko bidea argi diezaguke. Beraz, gizakion arteko bizimodua erraz dezaketen baliabide batzuei lehen mailako garrantzia eman behar diegu, doilorkeriarik gabe, horiei esker eguneroko gorabeherak errazago gaindi bait ditzakegu. Garapen horrek, beste askoren artean, elikadurari buruzko teknologia sorterazi du.


Historialari eta kultur antropologoak ados daude, amaitzen ari zaigun mende honetako urratsik nabarmenena hautatzerakoan: gizarteak eraman duen aldaketa-abiadura. Inolako zalantzarik gabe, azken ehun urteotako giza aldaketa historia osokoa baino sakonagoa izan da. Eta abiadura horrek zuzen-zuzenean markatu du janariaren zientzia, batipat elikadura eta osasunaren arteko erlazioari dagokionez. Oro har, zera aitor liteke, elikadurari buruzko ikerketetan garapenaren jautzia handia izan den arren, zoritxarrez handiagoa izan dela janari-hornidurarik ezak eta horren inguruan sorturiko ezgaitasunak eragindakoa; giza arazo itzelak

ageriago utzi dituzte.

Hirugarren munduko herrialdeetan pairatzen den janari-urritasunak patologia dramatikoak marrazten digu, aldi berean, gehiegikeriaren arrastoak gero eta erreagoak bihurtzen direlarik gure artean. Elikadura desorekatuak gogor astintzen du gure osasuna. Azken berrogeitamar urteotan, kontsumoak zeharo beste-lakotu du gure janariaren erregimena. Diabeteak, bihotz-odolbasoetako asaldurak, etab. metodologia berriaren ondorio ditugu. Baina beude lasai Arantxa eta Eukeni: ez naiz neurea ez den gaian sartuko. Gaurko honen asmoa, ordea, ondoko hau azpimarratzea zen: teknologia aplikatuak bidea markatu beharko digula, elikaduraren laberintoan zehar. Izan ere, aukeran ipintzen zaizkigun jaki goxo eta tentagarrien deidarpean aritzeak irteerarik gabeko hesiaren morrontza adieraz bait lezake.

Elikaduraren kalitatea jasotzeko, teknologiak gogor lotu beharko ditu janari-sektoreko enpresen interesak. Ez da ahanzi behar, enpresa horien helburuak gure osasunaren eskubi-deen kontra joan daitezkeela. Kalitatearen lasterketa ez dago oraindik irabazita.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



ARGI PLASTIC. C. B.

**PVC eta aluminiozko leihogintza
Berria Arrasaten! Diseinu berriak!**

Axeri, 3 ARRASATE Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

ZANGITU
C. B.

**PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK**

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

PAZI-OLA S.A.

Zaldise kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa 79 29 91

Zentzu gutxiko ekintza

Izugarrizko arrakasta izan du jende aldetik kontzejupean antolatutako argazki-erakusketak, ikusi baino ez da egon eta, aste guztian zehar ze jendetza izan duten erretratuek parean kontenplazifioan.

Joan zen martitzenean ordea, eguerdiko ordu batetatik ordu biak artean, buru asko izaterik demostratu ez duen batenbatek erakusketako argazki bat lapurtu zuen.

Kasu honetan, argazkiak ez du aparteko garrantzirik, herritar batena delako eta negatiboak hor direlako nahi adina kopia ateratzeko. Garrantzia duena zera da, hurrengoan erakusketa bat egitea pentsatzen duenak baloratu egin beharko duela zer uzteko asmoa duen ikusgai babesgabeko kontzejupean.

Agian, horrelako txorizo bategatik hemendik aurrera Monterronera joaten jarraitu beharko dugu erakusketaren bat dagoenean zeren, kontzejupean umeen baloikadaren arriskuari "arte lapurren" arriskua gehitu behar zaio hemendik aurrera.

Lapur horri esker kontzejupeko edo arkupeko hain esperientzia polita pikutara joan daiteke, baina bueno hemendik aurrera arte-obraren bat ostu nahi badu artaburu horrek Monterron jauregira mugitu behar izango du denok legez.

Jabier Ozaeta

Dagokionari

Joan zen aste bukaeran aurtengo Rugby Liga Txapelketa hasi zen. Zoritxarrez, aurten ere "exiliora" bidali gaituzue (horrek suposatzen duen gastu, traba, etab.ekin).

Oso ondo jefek. Milioiak gastatzen dituzue konplejo polideportibo bat egiten (oso ondo deritzot), baina ez zarete kapaz goldea pasatzeko Garagartzako kanpoan (hitz hau metaforikoa da, jakina). Joan zaitezte eta begiratu nola dagoen. Penagarria bai, baina penagarria da ere zuen jarrera. Eta gu bitartean "exiliora". Nahikoa da. Ez adarrik jo.

Pepe Arregi

Ohar garrantzitsua

Arrasate Press-ek ezin du argitaratu argi eta garbi identifikatzen ez den inoren eritzirik; beraz, ipini gutunetan izen-deiturak eta helbidea edo telefono-zenbakiren bat, behar izanez gero harremanetan jartzeko.

Gero, igorleak nahi badu, ezizenez edo siglaz argitaratuko da; baina erredakzioan identifikazioa behar dugu.

• **Txitxinpe** •


Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

Zer pentsatzen duzu urriaren 12ko jaiaz?



Joseba Onsoño
(Ikaslea)

Beno, jai hori Euskal Herrian ospatzeari gaizki deritzot.




Jovita Elortza
(Etxekoandrea)

Orain artean jai izan da eta ez zait gaizki iruditzen.



Karmen Uranga
(Etxekoandrea)

Hortxe dagoen jai da. Ni ez nago ez alde ez aurka, baina ospatu, esaten dena ospatu, ez dut ospatzen.



Iñaki Azkargorta
(Langilea)

Hemen ez dauka zentzurik; ez gaude bada Goardia Zibilaren aurka? Hau ez da Espainia.



Jon Ander Juldain
(Langilea)

Oso gaizki iruditzen zait hemen jai egitea, hau ez delako Espainia; gainera ez dut ulertzen alderdi nazionalistek nola onartzen dituzten gauza horiek.



Esther Heriz
(Ikaslea)

Ondo dago, jai bat gehiago. Zergatik ez?



ACEIG-FECEIko kidea

Alemana
Frantsesa
Ingelesa
Italianoa

ITZULPENAK
INTERPRETARIAK

Bisitak
Hitzaldiak
Katalogoak
Foileto teknikoak
Telex-a, eskutitzak
eta txostenak

Araba Etorb. 4 ARRASATE Tfnoa: 79 01 32

Psikologo klinikoa

LOGOPEDA

(Conillas eta Unibertsitate Politikoan)

Hizketa eta mintzairaren
diagnostiko eta
tratamendua

M^a Jesus Urzelai Ondona

15. Poligonoa 3. Etz. (Arkasle) Eskolaren aurrean

ESKORIATZA Tfnoa: 79 06 63



Fotokopiak
Enkoadernazioak
Planoen erreproduzioak
Ofiziala

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZ GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazkiak	45 87 44
----------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILERAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



11 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Regreso al lago azul" (10.30)
- Liburu-Azoka Garibain.
- Kontzertua, "Peña Florida" taldearekin, Parrokian arratsaldeko 8.30etatik aurrera.
- Goardiako farmaziak: Egunez: Español, Iturriotz. Gaeuz: Puy, Bergara.

12 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Regreso al lago azul" (5-7.30-10)
- Udalaiz Eguna
- Liburu-Azoka Garibain.
- Antzerkia, "El amante de Lili Marlen", Geroa taldearekin, Amaian gaueko 10.30etan.

Kirol Agenda

Futbitoia

Zaldibarko Txapelketaren barne, partidu ugari larunbat goizetik igande goizera bitartean.

Futbola

Atxabalpen 12.30etan, Arrasate eta Urretxuko emakume-taldeen arteko partidua.

- Goardiako farmaziak: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaeuz: Guallar, Bergara.

13 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Colegas a la fuerza" (7-10)
- Haurren Eguna, Aretxabaletan.
- Liburu-Azoka Garibain.
- Arrasateko Trikitilari eskolako saioak liburu-azoka inguruetan.
- Goardiako farmaziak: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Guallar, Bergara.

14 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Colegas a la fuerza" (7-9.30)

Pilota

Larunbatean, eguerdiko 12.30etatik aurrera, Arrasate eta Eskoriatzako pilotarien arteko neurketak Iturripen.

Saskibaloia

Larunbatean, arratsaldeko 6etatik aurrera, Musakolan Centraljet Euskal Air eta Century Urdaneta taldeen arteko partidua.

- Liburu-Azoka Garibain.
- Haurrentzako kale-antzerkia, "Kasketa", Jake Mate taldearekin, arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santam. Gaeuz: Estella, Bergara.

15 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Colegas a la fuerza" (7-9.30)
- Hitzaldia: "Bostgarren urteurrena", Marcos Roitmanen eskutik, arratsaldeko 7etan Monterronen.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aur. Ruiz, Maala. Gaeuz: Mozos, Bergara.

16 ASTEAZKENA

- Hitzaldia, "Nafarroako euskararen egoera", arratsaldeko 7etan Aretxabaletako Zazpita zineman.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

17 OSTEAGUNA

- Zinea: Amaia: "Hanussen el adivino" (8.30)
- Hitzaldia: "Las crónicas Guzmanpana", Gladys Giraldo-ren eskutik, arratsaldeko 7etan Monterronen.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

Ikastaroak

• Tailagintza ikastaroa

Udala eta Tailaginen Elkar-teak, Tomas Ugartemendia Leaburu eskultoreak emango duen tailagintza-ikastaroa antolatu dute. Ikastaroari urriaren 19an emango zaio hasiera, abenduaren erdialdean bukatzeko. Oinarrizko lehen maila duen jendeari zuzenduko zaio ikastaro hau, eta larunbatetan izango da, astero lau ordu. Ikastaro honetarako izena ematen duten guztiek, ahaztu barik kopurua mugatua dela, Uriburu kaleko tailerrera joan beharko dute astero.

Izena emateko edo argibide gehiago izateko, gualdera honako bi telefono hauetara deitzea nahikoa da: 79 40 79 (Felix) eta 79 21 05 (Xanti).

• Psikomotriz Praktikak

Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate-Eskolak antolatuta, urriaren 25etik 27ra bitartean Psikomotriz Praktikako Lehen Ihardunaldiak burutuko dira Gasteizen. Ihardunaldi hauei buruz, informazioa lortu nahi duen edonork, 76 13 42 telefono-zenbakira dei dezake, UNEDera hain zuzen.



Aste internazionalista

V. Mendurrenaren inguruan

Datorren 14ean hasi eta hilaren 19ra arte, Arrasateko Komite Internazionalistek Aste Internazionalista antolatu dute. Aste hau burutzeko, Komite Internazionalistek erakusketa bat eta bi hitzaldi antolatu dituzte. Erakusketan, argazkiak ikusteko aukeraz gain, Hego eta Ertamerikak jasandako zapalkuntzari buruzko informazioa eskuratu ahal izango da. Erakusketa, aste osoan Monterronen izango da, baina 19an kalera aterako da, Portaloira hain zuzen.

Antolatutako hitzaldiak, bestalde, bi dira. Asteartean, Monterronen eta arratsaldeko 7etatik aurrera, Marcos Roitman, Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakasleak, "América latina ante el reto del 5º Centenario" gaiari buruz hitz egingo du. Ostegunean berriz, toki eta ordu berean, Gladys Giraldok "Las crónicas Guamanpama" izenburuko hitzaldia eskainiko du.

egun horretan Arrasateetik Atarrabiara joan nahi duten guztientzat. AEDk eskaintzen duen autobus zerbitzua erabili nahi duten guztiek, aurrez izena eman behar dute, AEDn bertan, Hire liburudendan ala Iturriotz tabernan. Izena emateko orduan, 700 pezeta ordaindu beharko dira txartela jasotzeko. Izena emateko epea, urriaren 18an bukatuko da, eguerdian.

la gehienetan bezala, autobusa Biteri Etorbidetik aterako da, goizeko 8.30etan.

• Gaixoak Loiolara

Igandean, Loiolara erronesaldia egingo dute Arrasateko gaixok. Joan nahi dutenek herriko parroketan eman behar dute izena. Irteera goizeko hamarretan izango da San Andres, Zigarrola eta Garibaiko geltokietatik. Bidaiaren kostua, Kiruri jatetxean izango den bazkaria barne, 2.000 pta.koa.

• Independentziaren aldeko manifestazioa

HBk antolaturik, larunba-

tean goizeko 10.30etan autobusbata aterako da Arbolapetik, independentziaren alde Bilbon egingo den manifestaziora joan nahi dutenentzat. Izena emateko tokiak Biona eta Irati tabernak.

Antzerkia

• **El amante de Lili Marlen**
Geroa taldearen eskutik, Amaia antzokian "El amante de Lili Marlen" lana ikusteko auke-



ra izango da larunbatean gaueko 10.30etatik aurrera. Sarrera 500 pezetatan jarri da, gazte-txartela eramanez gero 300 pezeta ordaindu beharko direlarik.

• Kasketa

Jake Mate antzerki-taldeak Liburu-Azoka inguruetan astelehen arratsaldean, "Kasketa" lanaren antzezpena egingo du. Lan hau umeei zuzendua dago, eta bertan hiru estralurtarren gorabeherak ikus daitezke.

OHARRA

Mota guztietako elkar-te, erakunde eta taldeei:

Zeuek antolaturiko ekintza, iharduera, ospakizun, txapelketa, etab. en berri behar hainbateko aurrrerapenez jakin eraztea erregutzen dizuegu. agenda honetan sartu ahal izateko. Mesedez, deitu 77 05 65 telefonora. Eskerrik asko.


Arrasate Press



Autobusak

• Nafarroa Oinez 91

Hilaren 20an Iruñea ondoko Atarrabian, Nafarroako Ikastolen aldeko aurtengo eguna burutuko da. Ohi denez, AED elkarteak autobusa antolatu du



“ Elkarre horien arteko harremanak euskaraz izan daitezten lortu beharko genuke. Elkarre hauen artean euskararen erabilpena indartzeko hitzarmen bati borondatezko izenpea eman diezaioten izan daiteke modurik aproposena. Arrasateko Elkarre eta Erakundeen artean sinatutakoa eredu hartuz, hona hemen aipatu hitzarmenaren hamabi ataletatik lehena: “Aipaturiko entitateen elkarren arteko harremanik, ahoz nahiz idatzizkoak, beti euskaraz izango dira”...

... Azkenik, guzti hau horrela gerta dadin gure esku dago. Donostiako Euskaltzaleen Elkarre berriak, Arrasateko AEDk eta antzeko euskararen normalizazioaren bultzagile diren elkarreek, Institutzioek eta Txirrinduzale Elkarreek dute orain hitza. Euskalerrriak eta euskarak ez dute gutxiago merezi eta”.

(Beñi Agirre. EGUNKARIA, 1191-X-4)


“ Zintzoki uste dut, jubilazioaren arazoa, Arrasateko Esperientziak konpondu barik duen arazotako bat dela. Etorriko dira egun hobekak eta aurkituko dira konponbideak. Orain ez da negar egiteko ordua, ezta existitzen ez diren eskubideak eskatzekoa ere. Arautua dagoenari lotu behar gatzazkio eta, zentzu batean behintzat, ahaztu egin beharko genuke egin dugunaz edo ez dugunaz, izan garenaz...”.

(Juan Leibar. T.U. Lankide)

“ Ekainaren bukaeran kooperatiba industrialetan eta zerbitzu-kooperatibetan, Lan Kide Aurrezkoa eta Lagun-Aro bezalako estaldura-erakundeak kenduta, 21.224 lanpostu zeuden. Urte arteko hazkundea 1.153 lanpostutakoa izan da, baina honetan izan du zerikusirik Victoriano Luzuriaga, S.A.ren sartzeak”.

(Jabier Sagasta T.U. Lankide)

Zer erizten diozu urriaren 12ko Hispanitate jaiari?



Hasteko, gauza bat argi utzi nahi nuke. Hau eritzi pertsonala da eta ez du inongo loturarik Alderdi Sozialistarekin. Urriaren 12a jai-eguna da, baina alderdi sozialistak ez du jai hau inolako moduan ospatzen.

Pertsonalki zera esan nahi dut: Hispanitatearen eguna komunitate kultural baten eguna da, eta batez ere, gazteleraz egiten dutenen kulturaren eguna da eta jaiak hori goraiatu nahi du. Ni komunitate horretakoa naiz eta zentzu honetan nire jai da. Euskaldun bezala, euskarazko komunitatekoa ere banaiz, baina euskaldunok ez dugu egun berezirik sentimendu hori ospatzeko.

Egun honetan, Amerikaren aurkikuntza ere ospatzen da. Badakigu aurkikuntza honek ondorio positiboak eta negatiboak izan zituela. Ondorio positiboetan kultur zabalkuntza eta ekonomi desarroiloa. Ondorio negatiboetan, han zeuden herriek sufritutako zapalkuntza.

Honetan luze eztaibadatu behar dugu. Euskaldunok parte-hartze handia izan genuen Amerikaren aurkikuntzan eta gure artean honetaz hitz egiteko garaia da.

Nekane Iglesias,
abokatua eta zinegotzi sozialista.


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
ARRASATE
Tfnoa: 79 29 93

Memesa
79 42 22

Bergara

• Feria Elosun

Larunbatean, mendiko-ganadu feria izango da Elosun. Feria hau, urtero egiten da Pilarika egunez eta bertan Euskal Herri osoko abeltzainek hartu ohi dute parte, bai lehiaketan baita tratuetan ere. Dena ez da, ordea, ganadua izaten eta jai egun handia izaten da Bergarako auzo honetan.

Goizeko 9etatik ordubatak bitartean ganadu-erakusketa eta lehiaketa izango dira. Ondoren, Gorrotxategi eta Lizaso bertso-lariak saio bat eskainiko dute. Arratsalde, Goenatxo II harrijasotzailea, 200 kiloko harriarekin marka berri bat ezartzen saiatuko da, sei minututan hamar jasoaldi eginez.



Aretxabaleta

• Txiste antzeztuen lehiaketa ikusteko aukera izango dute aretxabaletarrek, hilaren 19an, arratsaldeko lau t'erdietatik aurrera Zaraia zineman. Lehiaketa bi zatitan banatuko da, kanporaketak hilaren 19an izango direlarik: Finalerako pasea lortzen dutenak hurrengo astean toki eta ordu berean lehiatuko dira. Lehiaketan, 12 urtetik gorako edozein pertsonak izango du parte hartzeko aukera. Beinkek antolatu du.

• Aurrekoa ez da Beinkek antolatu duen ekintza bakarra, besteak beste, "Nafarroako euskararen egoera" gaiak hitzaldia ere antolatu du eta. Hitzaldia hilaren 16 izango da, arratsaldeko 7etan Zaraia zineman. Nafarroan gaur egun euskarak bizi duen egoera azaltzeko, Ikastolen Elkarte ordezkaritza bat eta IKAKo beste bat joango dira Aretxabaletara.


• Asteburu honetan, ikuskizun polita izango dute aretxabaletarrek, igandean Loramendi dantza-taldeak antolaturik Haurren Eguna burutuko da eta. Bailarako herrietako eta Euskal Herriko probintzia guztietako dantza-taldeak bilduko dira Aretxabaletan.

Oñati

• Lehiaketak, trabesia eta goitibeherak asteburuan

Joan zen astelehenean amaitu ziren Oñatiko jaiak, baina egitarauan sartzen ez ziren zenbait ekintza, hurrengo astebururako uzteko ohitura dago herrian.

Larunbatean, Oñati zeharkatuko dute Mountain Bike zaleek. Igandean, goizeko 8etan hasita, V. Margo-Lehiaketa izango da herriko kaleetan. Goizeko hamarretan, haurrek astean zehar batutako perretxikoen erakusketa eta lehiaketa egingo dira. Bukatzeko, arratsaldeko goitibehera-lasterketak bailarako partaide eta ikusle asko bertaratuko du.



AZTERKETA ETA PROGRAMAZIOA

SOFT VITORIA

INFORMATIKA-IRTENBIDEAK

Enpresa-gestioaren inguruko informatika-irtenbideak
Honako hauentzako irtenbideak: Monopostuak (DOS)
Multipostuak (UNIX)
Sare lokalak (NOVELL)

IRTENBIDE STANDARRAK ETA
NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA.

Informazio gehiago nahi izanez gero, dei diezaguzu.

Manuel Iradier, 9
01006 GASTEIZ

Tfnoa: 945 - 13 08 64
Faxa: 23 20 21

ZENTRO


PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza-terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (ohetustitzea), eukopresia
Ignazio Zuloaga kalea, 10
ARRASATE Tfnoa: 79 48 77

Erreskate taldeak

Itsasoak Pedro Aranburuzala irentsi zuenetik pasa dira aste batzuk, eta oraindik ez da beren gorpurik azaldu. Joan den larunbatean, mondragoetar eta aretxabaletar talde bat Frantziako Landetan ibili zen gorpuren bila, baina ez zuen ezer aurkitu. Larunbat honetan ere, gauza bera egiteko asmoa dago eta laguntzako prest dauden guztiak Herriko Plazan ager daitezke, goizeko 8etan. Ahalik eta jende gehiena agertzea eskertuko litzateke, horrela eremu handiagoa ikusteko aukera dago eta.



Pedro Aranburuzabala

ONGI ETORRIA JAIOBERRIEI

Corbella Zubizarreta, *Iñigo*. Irailaren 28an.
Uribarren Martinez, *Mikel*. 30ean.
Altuna Letamendi, *Andoni*. 30ean.
Garai San Vicente, *Amaia*. Urriaren 2an.
Buñuelos Jimenez, *Lorena*. 4an.
Otxoa Cires, *Leticia*. Sean.
Medina Valenciaga, *Lorea*. Sean.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Luis Aperribai & Magdalena Barrigón.
Irailaren 28an. Elizaz.
Jose Luis Aranbarri & M^a Cristina Duque. Urriaren Sean. Elizaz
Francisco Jesus Vicente & Ana Maria Lasaga. Sean. Elizaz.
Francisco Javier Garalon & Maria del Rocío de Nova. Sean. Elizaz

Txandaka

EMAKUMEAK ERASOPEAN, EPAILEAK KONPLIZE

Gure babesgabeta-sunari buruz egunkarietan agertzen diren berriak oso kezagarriak dira. Tratu txarrak jasandako emakumeen ahotsak entzun dira epaitegi eta erakundeen jarrera salatuz, erasotzaileek zigorgabe jarraitzen dutelako eta emakumeek tratu txar eta eraso-pean.



Sagrario Lopez (*)

Berriz ere, gure herritik kilometro gutxitara, Oñatin eta Beasainen, irailak 6an, bi gizon atxilotu zituzten beren emazteak erasotzeagatik. Uste denez, lehenengo kasuan gizonak sukaldeko labanaz erasotu zuen emaztea, eta bigarrenak berrogei ukabilkada eman zizkion bereari. Gainera, heriotz mehatxuak egin dizkiete bie.

Berriz ere, beste epaile batzuek, —Bergarako 4. Instrukzio-Epaitegiko eta Tolosako 3. Epaitegiko titularrek— oraingoan ere libre utzi dituzte erasotzaileak, falta bat besterik ez dutela burutu esanez.

Epaileen jarrerak sexistak dira, gaizkide bihurtzen dira, emakumeen aurkako erasoak bultzatzen dituzte. Beharrezkoa da sistema judizial arkaiko eta patriarkal ho-

nekin bukatzea; hone-lako justiziak euskal gizartegune guztietan dagoen sexismoari iraun erazten dio. Legez ez zaio emakumeari bere gorputzaz libre joka dezan uzten, eta hortxe daude abortoarean aurkako sententziak. Legeak ez du delitutzat


hartzen lanean ematen den diskriminazioa. Legeak libre uzten ditu eraso sexualak burutzen dituztenak, eta emakumeak babesgabe uzten ditu indarkeria sexistaren aurrean.

Beharrezkoa da kode penalaren funtsezko aldaketa, legearen aurrean emakume eta gizonen desberdintasuna eragozteko.

Ezin gara ezer egin gabe gelditu, mobilizatu egin behar dugu errealtate hau aldatzeko.

Emakumea objektu sexualtzat hartzen jarraitzen den bitartean, dependentsia ekonomikoan eta senarra baino kategoria apalagokoa izaten segitzen duen bitartean, pentsatzeko moduan eta heziketan aldaketa sakona lortzen ez dugun bitartean... eraso sexuak aurrera jarraituko dute.



(*) *Egizan-eko partidea.*



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala



Hamahiru stand ikusgai Biteri Etorbidean, bi Udalarenak

Liburu-azoka zabalik 14a arte

Argitalpen guztiek %10eko beherapena izango dute

Pasa den asteazken eguerdian, Bostgarren Euskal Liburu eta Disko Azoka zabaldu zen. Aurrez, Udaletxean, Patxi Plazaola Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailaren ordezkariak, Asier Mintegi Euskadiko Liburu-Azoken Batzordeko arduradunak, Antton Zumalde Udaletxeko Kultura-Batzordeburuak, eta Jon Garai Udaletxeko Kultura Teknikariak prentsaurrekoa eskaini zuten.

Bostgarren Liburu eta Disko Azoka hau zabalik izango da astelehena arte. Goizez, 11.30etatik 2etara eta arratsaldez, 5.30etatik 9.30etara.

Aurtengoan 13 erakustoki jarriko dira Garibai kalean, Bilbo, Donostia eta Zornotzatik etorritako argitaletxeen eskutik. Aipatutakoez gain, Arrasateko Udalak bi erakustoki izango ditu, Udalekoak, Irakasle Eskolako argitalpenak eta AEDk antolatutako sariketen ondorioz sortutako argitalpenak jartzeko.

Erakustokia jartzea gutxi balitz, Udalak animazio-ekintza pare bat ere antolatu ditu: igande goizean Trikitixa taldekoen saioak, eta astelehenean Jake Mate antzerki taldeak egingo duen antzezpina, "Kasketa".

Aurtengo azokak, guztira milioi bat pezeta inguruko aurrekontua dauka eta bertan azken orduko nobedadeak ikusi eta erosteko aukera izango da, beti ere %10eko beherapenez. Asier Muniategik, Euskadiko Liburu-Azoken Batzordeko ordezkariak esan zuenez, aurtengohien saldu diren euskal liburuak "Obabakoak", "Babilonia" eta "Krisalida" izan dira. Erdal literaturan, berriz, "Cómo ser mujer y no morir en el intento", "El clán del oso cavernario" eta "La mujer habitada". Aipatu behariaz Arrasaten bi milioi t'erdiko salmentak egin zirela. Aurtengohiago saltzea espero dute, antolatzaileek.

Usteak uste

Maritxu Kajoi egunaren goizean, normalean baino gorbata batzuk gehiago ikusten dira. Arratsaldean, anderefloaren laguntzaz eginiko paperezko gorbata eta lorez jantzitako ume eta gaztetxoak ikus daitezke. Giro polita, alai.

Ezin utzi ikusi gabe arratsaldeko zortzietarako omenaldi eta urteroko miraria. "Ez gaude denok" gogoratzen digu kartel batek. Ondoren, jende asko txikiteoan afaltzera joateko prest. Oso polita dena, benetan. Pozgarria baldin bada giro hau, zeharo aldatzen da gero ikus daitekeena. Botila eta edalontziak lurtean apurtuta, bokatak edozein tokitan, mozkor ugari. Etxean egon beharko luketen 14-15 urteko gazteak tabeman: batzuk edanda, beste batzuk... atarian. Eta... beste gauza batzuk ere bai.

Libre omen dago dena, ez du inongo garrantzirik egun bakarra bait da. Gainera, larunbat goizerako garbi eta txukun ikusi ahal izango dugu dena, garbitzaileak pasa ondoren.

Hain polita izan zitekeen eguna... hondatu zaigu. Nire ustez, behintzat. Eta, bihamurruen, haserre nengoen neure buruarekin. Urtero baimena ematen diodalako egoera honi. Eta, hau da txarrena, gero eta normalago ikusten dudalako Maritxu Kajoi egunean ikusten dudana. Baina, lasai, zortzi egun pasa ondoren dena ahaztu dut.

JOXE RAMON ELORZA

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldipe, 2

Erakusketa: Santxo Abarka, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



ilepaindegi mistoa

Erguin, 15 etxabehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Maritxu Kajoi egunez, urtero legez dotore baino dotoreago jarri zitzaizkigun **Patxi Ugarte, Juanito Barberan** eta **Xabier Uribeetxeberria**. Argi dagoena, edari barik pasatzekotan ez zeudela.



Aizpun Bila koadrilakoek ez zioten hutsik egin Maritxuri. Batzuk etiketaz behar bezala jantzita eta beste batzuk ez, baina denak kalean, horrelako egun batek eskatzen duen moduan. Ederki asko nabaritu zen hurrengo egunean Zaldibarko futbito-txapelketan, 6 eta 5 galdu zuten eta.



Iñaki Zabaleta, Juanito Saizar, Pio Azkarate, Arantxa Arrizabalaga, Edurne Arrizabalaga eta **Rosa Mari Elortza**k armairutik trajerik ederrenak atera zituzten Maritxuri ohore egiteko prest. Horrela, normala da argazkian agertzeko eragozpenik ez izatea.



Edariari neurrik hartzen ez dakienik ere, ugari ibiltzen da, bai Maritxu egunean baita normalean ere. Argazkiak ondo adierazten du hori.




Parques y Jardines


PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)





Pasa den igandean, *Kilometroak 91* ekitaldiak milaka euskalzale bildu zituen Bergaran. Horien artean, ezin falta bada aurtengo propaganda-bideoan parte hartu duen **Marino Lejarreta** txirrindularia. Bizikletan ez, baina berriztarrak oinez bai, egin zuen zirkuitua bere osotasunean. A! neska-lagun eta guzti askoren sorpresarako.



Kilometrotara gehienak egunpasa joaten badira ere, beste batzuk, kasu honetan **Xabier Letona** "Ataxi" eta **Ana Diez**, lanean aurkitu genituen Bergarako kaleetan. Zertan? *Euskaldunon Egunkaria* eskaintzen ingurutik pasatzen ziren guztiei. Ez zuten, ez, atsedenerako denbora gehiegi izan.



Zirkuitu itxiek hori izaten dute, buelta bi norabideetan egiteko aukera. Gehienak beherantz doazen moduan, bikoteari gora egitea otu zitaion. Bai batzuek eta bai besteek ere, sasoi eta umore ederra erakutsi zuten.



Bergaratarrek ibilbide polita baino politagoa prestatu zuten pasa den iganderako, kanpotarrentzat ezezaguna seguruen. Horrek, askori argazkiak egiteko aukera eman zien. Argazkikoak gu harrapatu nahi gintuen, baina nonbait gu azkarragoak izan eta bera harrapatu.



ARRASATE PRESS



77 05 65

olioak, *Artea* lientzoak, akuareliak eta eskulanak

Ferreries, 25 Tfnoa: 77 10 95



INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxebeha ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxe: 77 14 27

□ Ehiztariak haserre

Arrasateko ehiztariak, Gatzaga eta Aramaioko Udalerriekin haserre daude. Dirudienez, hemengo ehiztariak ezin dute ehizarik egin aipatutako bi herrietan, Udal biek bertako ehiztariak babes-teko neurriak asmatu dituztelako. Gatzagan esaterako, Udalak *onura publikoko ondasun* izendatutako lur-sailak saldu ditu; ondorioz, arrasatearrek betidanik ehiza egin duten tokietan orain ezin dute.

Aramaion ere, egoera antzerakoa da. Aramaioko Udalak dioenez, paseko postuen zozketan parte hartzeko eskubidea aramaioarrek bakarrik daukate. Bi arrazoi horientatik "Leintz Ehiza eta Arrantza Elkarte"ko ordezkariak haserre ageri ziren, arrasatearrek ehizan egiteko tokirik ez dutelako.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, aipagarria da Arrasateko ehiztariak animalien ugalketaren aldeko errepoblaketak egingo dituztela. Hori bai, arlo honetan ere, haserre ageri dira ehiztariak, Udaletik ez dute inoiz laguntzarik jaso eta.

□ Hileroko Plenoa ostiralean

Ostiraleko plenoan aztertuko diren gaien artean, Mankomunitaterako laugarren ordezkariaren aukeraketa, Amaia Antzokia berritzeko obren adjudikazioa, ospitale zaharra berritzeko obren adjudikazioa eta PSOEek Euskarari eta egoera ekonomikoari buruz aurkeztutako bi mozio daude.



Dantzariak ohorezko aureskua egin zuten agintarien aurrean

Iturripe inaguratuta

Euriarekin oraingoz erabili ezinezko instalakuntzak

Joan den larunbatean, Eli Galdos, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak, Xabier Zubizarreta eta Udaleko beste hainbat ordezkariak Iturripeko kiroldegia inaguratu zuten.

Eguerdiko hamabietan Eli Galdos Iturripera iritsi zen. Ordurako, Udaleko ordezkari asko Iturripen zeuden. Bi dantzari aureskua dantzatu eta gero, Xabier Zubizarreta eta Eli Galdosek hitz batzuk esan zituzten. Diputatu Nagusiak futbitoan ohorezko satea egin

zuen. Eli Galdosen egin beharra ez zen horrekin bukatu, atleta eta pilotariak ikustera hurbildu zen eta.

Inaugurapenak iraun zuen bitartean lanbroa ziharduen eta lanbroak, hain zuzen, Iturripeko akats nagusia zein den argitu zuen: labankortasuna. Atletismo pistako eta kanpoko jolasguneetako marrak egiteko erabili den pintura euriarekin oso labankor bihurtzen da. Orain beste pintura-klaseren bat frogatzeko asmoa dago.

ESTETIKA ZENTRUA

Z a r r a o a

lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

VE ECUADOR

Kontzezifto, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06




Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK

Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



Jabier

erriko jaiak dira eta koadrilek, Sellako jaitsieraren miresle amorratuak, antzerako zerbait antolatzea pentsatu zuten. Bide batez, erreken kutsadura salatuko zuten.

Gure argazkiko lagunak gustoz hartu zuen ideia eta etxe ondoko obretatik hartutako egur batzuekin,


errekaren zikinkerari zegokion moduko txalupa egin zuten.

Iritsi da jaitsieraren eguna eta gure laguna gupasa eginda agertu zaigu. Parte hartu barik etxera joateko tentazioa izan du, baina egindako lan guztia alferrikakoa gerta ez dakion, irtetea erabaki du.

Hor dago aharrausika noiz amaituko itxaroten.

"Urak dakarrena urak daroa" dio abesti zaharrak. Agian egia izango da, baina, arren, ez dezala gure laguna eraman. Amurizak bota zuen bezala, "bihotz apurrik hor baldin bada, salbatu otoi, mesedez". Eta ohera eraman...

Kiromasaia terapeutikoko ikastaroa



- Kiroletakoa
 - Terapeutikoa
 - Bizkarrezurrekoa
 - Erreflexologia
- Ordutegi malgua. 2 egun astean.
Diploma profesionala

Izenematea: General Loma Plaza, 4-3. GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 33 99

**ARRASATE
PRESS**




77 05 65



Urriak 12an, larunbata, **Udalaitz Eguna** ospatuko da. Goizeko 9etan izango da irteera Udala auzoan. Goizeko 11etan, mendi giroan hildako A. Balzategi, J.J. Salaberria, T. Arana, J. Jauregi, N. Agirre eta J.M. Saizen aldeko Meza izango da. Meza honetan, sei Udalaizt-zale horien aldeko bertsoak eskainiko dituzte bertsolari gazteek. Meza ondoren, Aita On Lekuonaren *Udala Mendi* abestia kantatuko da.


Udala Mendi, Udala Mendi
Euskal Aitzik Zutunena,
Araba Alboan, Erdi Bizkai ta
Erdi Gipuzko aizena.
Zeruko Jaunak Eukiko Al Au
Beti Gaur Baizen Zuzena
Eu Aizen Arte Zutunik Dedin
Euskaldunaren Izena.



Iñaki Oriak eta **Lourdes Irasuegik** ezkontzaren 25. urteurrena ospatu zuten pasa den irailaren 25ean Udalan. Lehenengo meza izan zuten ete ondoren bazkaria Uxarte jatetxean, familia osoarekin batera.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



◀ **"Gazteen grinak"** argazki-lehiaketako lehenengo bi sariak Madrilera joan dira. Irabazlea, **Silvia Usle** izan da eta bigarrena **Marlo Turegano**. Hirugarren saria Errenteriako **Angel Pérezek** jaso du. **Jabier Ozaeta** arrasatearrari akzesita ematea erabaki zuen epaimahaiak. Lehiaketan parte hartutako argazkiekin erakusketa antolatu zen kontzejupean. Erakusketari egindako harrera oso ona izan da, baina Ozaetaren argazki saritua lapurtu egin zuten asteartean.

Banco de Vitoriak bulegoa zabalduko du laster Biteri etorbidean. Bulego hau lehenago zabaltzeko asmoa zuten, baina ziurtasun aldetik Gobernu Zibilak eskatzen dituen betebeharrak guztiak bete arte, ez dute zabaltzeko baimenik jasoko. Bi pertsona ibiliko dira bertan lanean eta zuzendaria Jose Miguel Izquierdo gasteiztarra izango da. ▶



txutxumutxuak




● **Jon Garal** eta **Patxi Balzategik**, 33 urteko arrasatearrek, udaltzainak biak, gainditu egin dute Eusko Jaur-laritzak administrazioa euskalduntzeko ezarri dituen hizkuntza-perfil edo eskakizunetan zegoen maila, hirugarrena, alegia. Zorionak beraz biei.

● **Fabian Bilbao**, 34 urteko bermeotarra da Fagor Electrodomésticos-eko esportazio-zuzendari berria. Zazpi urte daramatza Fabianek kooperatibetan. Bere orain arteko lanak, Climan eta Fagor Electrodomésticos-eko marketing sailean eta Frantziako delegazioan egin ditu.

● **Enrike Alonso**, 26 urteko txirrindulari arrasatearrak ekipo berria izango du hurrengo denboraldian. Lotus-eko zuzendaria den Miguel Morenorenkin izandako tirabiren ondoren, Caja Hipotecaria Centro Sur talde berriak egin dion eskaintza onartu du.

GORROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza, ARRASATE Tfnoa: 77 06 07



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe Industriaidea
ARETXABALETAK

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99



Berriro ere martxan

Ikuslego berezia izan zuen Zaldibarko Futbito Txapelketak, aurtengo lehen ihardunaldian. Trajearen poderioz jendea inportante bilakatuta. Izan ere, Zaldibarko txapelketari, Maritxuri moduan, etiketa dagokio.



**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxebehea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxe: 77 14 27

fasprint

Inprimaketa-denda

**Arrasate Pasealekua, 2
ARRASATE
Tfnoa: 77 06 11
Faxe: 77 09 86**



Berriro ere martxan

Ikuslego berezia izan zuen Zaldibarko Futbito Txapelketak, aurtengo lehen ihardunaldian. Trajearen poderioz jendea inportante bilakatuta. Izan ere, Zaldibarko txapelketari, Maritxuri moduan, etiketa dagokio.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxebehea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27

fasprint

Inprimaketa-denda

**Arrasate Pasealekua, 2
ARRASATE
Tfnoa: 77 06 11
Faxa: 77 09 86**



Zaldibarko Futbito txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Expres	1	1	0	0	20	5	2
G.P. Noski	1	1	0	0	6	0	2
Arrasate Kristald.	1	1	0	0	5	0	2
Zulu's	1	1	0	0	7	4	2
Fosforos	1	1	0	0	5	2	2
Tronkoteak	1	1	0	0	5	5	2
Adobe F. C.	1	1	0	0	5	4	2
Koxka's	1	0	1	0	6	6	1
Jubilatus	1	0	1	0	6	6	1
Kriskibalda	1	0	0	1	4	5	0
Los Heredia	1	0	0	1	5	6	0
Sum. Ind. Ugarte	1	0	0	1	2	5	0
Los Manchass	1	0	0	1	4	7	0
B.D.L	1	0	0	1	0	5	0
Uglys	1	0	0	1	0	6	0
Expert	1	0	0	1	5	20	0
Neanthertal's	0	0	0	0	0	0	0
Tall. San Josepe	0	0	0	0	0	0	0
Total	16	7	2	7	86	86	16

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
La banda	1	1	0	0	7	0	2
Navarros	1	1	0	0	4	1	2
Maria del Monte	1	1	0	0	2	0	2
Bukanak	1	0	1	0	3	3	1
Anbotoste K. T.	1	0	1	0	3	3	1
Txintxes Osorik	1	0	0	1	0	2	0
Oleee!	1	0	0	1	1	4	0
Inter Alimafias	1	0	0	1	0	7	0
Los Motz	0	0	0	0	0	0	0
Potroak Lorat.	0	0	0	0	0	0	0
Danok Lagun	0	0	0	0	0	0	0
Gau azkenak	0	0	0	0	0	0	0
M. K. A.	0	0	0	0	0	0	0
Totxus	0	0	0	0	0	0	0
Ganbelas	0	0	0	0	0	0	0
Jo ta akabau	0	0	0	0	0	0	0
Sibilus Rover	0	0	0	0	0	0	0
Fas Print	0	0	0	0	0	0	0
Total	8	3	2	3	20	20	8

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida	1	1	0	0	11	0	2
Arrasate Press	1	1	0	0	5	0	2
Argi ibili Mañre	1	1	0	0	6	1	2
ATB	1	1	0	0	6	4	2
Gnu Seg Bilbao	1	1	0	0	3	1	2
Diego Antonio	1	1	0	0	6	5	2
New Laso Arregi	1	1	0	0	2	1	2
Monterrey tab.	1	0	1	0	4	4	1
Shaktale	1	0	1	0	4	4	1
Sokoakoak	1	0	0	1	1	2	0
Aizpun bila	1	0	0	1	5	6	0
Whiskeria Linde	1	0	0	1	1	3	0
Txokeros	1	0	0	1	4	6	0
Alaves	1	0	0	1	1	6	0
Aurrera boliel	1	0	0	1	0	5	0
Bayer de Leniz	1	0	0	1	0	11	0
Bar Kajoi	0	0	0	1	0	0	0
AEK	0	0	0	1	0	0	0
Total	16	7	2	7	59	59	16

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Hirei	1	1	0	0	6	1	2
Pepelus	1	1	0	0	4	1	2
Notxingan Flo.	1	1	0	0	4	1	2
Artano bar.	1	1	0	0	2	1	2
Arrasate Comerc.	1	1	0	0	1	0	2
Ghana	1	0	0	1	0	1	0
B. C. Daglas	1	0	0	1	1	2	0
Resakass	1	0	0	1	1	4	0
Nagixak	1	0	0	1	1	4	0
Ezkinako hontza	1	0	0	1	1	6	0
Sukumurus Anb.	0	0	0	0	0	0	0
Artankos Udal.	0	0	0	0	0	0	0
Arrasate kir.	0	0	0	0	0	0	0
Bizkorrak	0	0	0	0	0	0	0
Balaik	0	0	0	0	0	0	0
Atxanta ke te...	0	0	0	0	0	0	0
Cameruns Trikiti	0	0	0	0	0	0	0
Kakajauri	0	0	0	0	0	0	0
Total	10	5	0	5	21	21	10

JMA



Argazkiak ez du ezer ikusgarririk, futbitoaren oinarria bakarrik. Bata erasoan, atezaina baloiaren bila eta defentsa, bada ez bada, adi. Sarritan horrelako egoeren ondorioz gola etortzen da, kasu honetan ez.

EMAITZAK

♣ = Jokatu gabeak

A taldea

Tronkoteak 6	Los Heredia 5
Koxkas 6	Jubilatus 6
GP Noski 6	Uglys 0
Expres akaitegi 20	Expert 5
Neanthertal's ♣	Tall. san Josepe ♣
Adobe F. C. 5	Kriskibalda 4
Zulus 7	Los Mantxas 4
Arrasate krist. 5	BDL 0
Sum. Ind. Ugarte 2	Fosforos 5

B taldea

Los Motz ♣	Potroak Lorategi ♣
Bukanak 3	Anbotosie K. T. 3
Danok Lagun ♣	Gau azkenak ♣
Maria de Monte 2	Txintxes Osorik 0
La Banda 7	Inter de Alimafas 0
M. K. A. ♣	Totxus ♣
Navarros 4	Oleeeel 1
Ganbelas ♣	Jo ta akabau ♣
Sibilius Rover ♣	Fas Print ♣

C taldea


Diego Antonio 6	Alzpuz bila 5
Sokoakoak 1	New Laso Arregi 2
Monterriy taberna 4	Shaktale 4
Gnu Seguros Bilbao 3	Whiskeria Linde 1
Arrasate Press 5	Aurrera botlel 0
Txokeros 4	ATB 6
Bayer de Leniz 0	Adelaida 11
Alaves 1	Argi ibili Maire 6
Bar Kajoi ♣	AEK ♣

D taldea

Nagixak 1	Pepelus 4
Sukumurus Anboto ♣	Artzankos Udalaiz ♣
Arrasate Kirolak ♣	Bizkorrak ♣
Ghana 0	Arrasate Com. 1
Balaike ♣	Atxanta ke te ♣
Bar Artano 2	V. C. Daglas 1
Notxingan flores 4	Resakas 1
Ezkifako hontzak 1	Hirel 6
Cameruns Trikiti ♣	Kakajauri ♣


Lorategi
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



LASO ARREGI
argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 75



ARRASATE
KIROLAK

Kirol-ekipamenduak

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 79 92 42



Zaldibarko Futbito txapelketa

Txutak

Golen saltsa

Ongietorria berriro ere, Zaldibarko Futbito Txapelketako gorabeheren irakurle guztioi. 72 taldek eman zuten izena aurtengo Zaldibarko Txapelketan parte hartzeko. Joan den astean eman zitzaion hasiera txapelketari, eta aipatutako talde-kopuru horretatik 22k ezin izan zuten txapelketa hasi. Arrazoa? Iturripen dauden kanpokaldeko bi pisten egoera txarra euria egiten duenean. Hau da hau marka! Kiroldegia inauguratzen den egun berean, partiduak suspenditu behar zorua ez dituelako behar bezalako baldintzak. Egia esan, partiduak

bertan behera uzteko erabakia oso zuzena izan zen, futbito-pista biek izotz-pista ziruditelako eta lagun batek min hartu zuen moduan beste askok ere har zezaketelako.

Iturripeneko zoruaren arazoa alde batera, izugarriko ikusminez hasi zen txapelketa. Maritxu Kajoiko biharamuna izan arren, jokalar gehienak nahiko fin aritu ziren eta taldeek ez zuten hutsik egin. Hori bai dela afizioa, horrelako gaua pasatu, eta goizean futbitoan jokatzeko moduan izan.

Emaitzei dagokienez, aipagarrirenak talde bakoitzean lider gelditu direnenak dira: A taldean, Expresek 20 gol sartu zizkion Experti; B taldean, La Bandak 7 gol Inter Alimañasi; C taldean, iazko txapeldunak, Adelaidak, 11 gol Bayer de Lenizi; D taldean, Hireik 6 gol Ezkinako Hontzak taldeari.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Tronkoteak	Koxkas
Los Heredia	Jubilatus
GP Nosi	Esprez akaitgia
Ugys	Expert
Nearihertal's	Adoba F. C.
Tal. San Josepe	Krisibaldia
Zulus	Sum. Ind. Ugarte
Los Manchás	Arrasate Kristaldegia
BDL	Fosforos

B taldea

Los Motz	Bukanak
Potroak Lorategi	Arbotoste K. T.
Danok Lagun	Maria del Monte
Gau Azkenak	Txinbes Oeorik
La Banda	MKA
Inter de Alimañas	Tobus
Navarros	Sibilus Rover
Oleee!	Garbelas
Jo ta Akabeu	Fasprint

C taldea

Diego Antonio	Sokoakoak
Alzpun Bila	New Laso Arregi
Monterrey taberna	Gnu Seguros Bilbao
Shaktale	Whiskeria Linde
Arrasate Press	Txokeros
Aurrera Bolle!	ATB
Bayer de Lenitz	Bar Kajo!
Adelaida	Alaves
Argi Ibil Mapfre	AEK

D taldea


Nagizak	Sukumurus Anboto
Pepelus	Artzankos Udalaiz
Arrasate Kirolak	Ghana
Bizkorak	Arrasate Comercial
Balaika	Bar Artano
Abanta ke te merces	V. C. Dagias
Notdingan Florest	Cameruns Trikiti
Resakas	Ezkinako hontzak
Hirel	Kakajauri



ITURRIOTZ taberna Girorik jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04


B E T I
SEGURU

 **MIKEL LASA**
Aseguru artekaria


Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

Enrike Alonso

Talde berria denboraldi berrirako



Bere karrera zuzen zihoala uste genuen denok, baina berak ere.

Baina aurtengo denboraldia-
ren bukaeran, Miguel
Morenok, aginduak zizkion
guztiak ahaztu egin ditu eta
Lotus taldetik kanpora utzi.

Zorionez, badauka
Enrike Alonsok talde berri
bat, bizikletaren gainean
balio duena erakusteko.

— Miguel Morenok izen
ona izan du beti txirrindulari-
tzaren munduan. Zer gertatu
da aurten?

— Zahor edo Hueso
bezalako talde txikitako zu-
zendaria zenean, oso harre-
man zuzena eta estua izaten
genuen berarekin, baina Lo-
tusen hasi denetik eskuetatik
ihes egin dio denak. Aurten,
une askotan Lotusek hiru
talde zituen batera korritzen
Europar zehar. Horrela ne-
keza da talde bat zuzentzea.

— Zurekin ez da oso
zuzen ibili...

— Niri aurten amaitu
zait kontratua, baina bi urte
gehiagorako sinatuko nuela
agindu zidan. Lasai nengoen
Miguelen hitzarekin, baina
egunkarietatik jakin nuen ez
zuela nirekin ezer jakin nahi.
Berarekin hitzegiten ahale-
gindu naiz, baina alferrik.

— Edozein modutan,
baduzu talde berri bat. Gau-
zak nola dauden ikusita, ez da
gutxi, ezta?

— Ez. Estatuko txirrin-
dulariekin gertatzen dena
kezagarria da. Adibidez,
Blanco Villar bezalako txi-
rrindulari bat talde barik
dago. Beste asko txirrin-
dularitza utzi beharrean aurkitu
dira.

Aurten, estatuko ekipoe-
tako 130 txirrindularietatik
50en bat atzerrikoak dira eta
urtetik urtera gora doaz.
Ekialdeko Europatik dato-

zenek hemengoan aldean
huskeria kobratzen dute eta
taldeetako arduradunek na-
hiago dute haiekin gelditu.
Futboleko edo saskibaloian
bezala behar luke honek,
taldeko hainbeste atzerritar
eta kito.

— Guzti honek, ez al
zaituzte zerbait egitera bul-
tzatzen?

— Beno, badugu txi-
rrindulari profesionalen
elkarte bat eta gai horretan
ez, baina beste gai batzuetan
lortu dugu zerbait. Aurten
gizarte-segurantza izatea
lortu dugu adibidez.

— Zure talde berrira
itzuliz, nola gauzatu da dena?

— Taldearen izen osoa
Caja Hipotecaria Centro Sur
da. Kutxa hau Venezuelako
kutxa bat da eta oraindik ez
du bulego bakar bat ere Es-
painiako estatuan. Beraz,
nahiko aurrekontu motzare-
kin hasi gara. Bi urterako
sinatu dut eta profesionaletan
nabilenetik lehenengo aldiz
aurreko urtean baino fitxa
txikiagoa daukat. Dena den,
kutxak estatuan tokia hartzen
duen neurrian, fitxak goraka
joango direla esan digute.
Zuzendaria Paco Fernandez

madrildarra dugu, hainbat
urtetan ziklo-krosseko se-
lezionezaitailea izandakoa.
Taldearen ardatza, iazko Pa-
terna da, Alfonso Gutie-
rrez eta besteren bat ezik.
Bost txirrindulari gipuzkoar
izango gara guztira, Murua,
Martiarena, Olano, Carba-
yeda eta ni.

— Gipuzkoarrak aipatu
dituzu. Egin dira ahalegin
batzuk Gipuzkoan talde bat
osatzeke. Zertan gelditu da?

— Azkenean ez da gau-
zatu. Banco Guipuzcoanore-
kin zenbait harreman izan
dira, baina ez da posible izan.
Oso polita izango litzateke
Gipuzkoan talde bat osatzea,
baina oraingoz itxaron egin
beharko dugu.

— Bestela, nola ikusten
duzu txirrindularitzaren maila
Gipuzkoan?

— Nik betiko antzera
ikusten dut maila. Batzuek,
orain Bizkaian maila hobea
dagoela diote, baina hori
betiko gauza dela uste dut
nik. Profesionaletan, Buene-
txea Artiachera doa eta zer-
bait egin dezakeela pentsa-
tzen dut. Olano nire taldean
ibiliko da, baina ez dut ge-
hiegi ezagutzen. Lazpiur ere
hor dago... Afizionatuetan,
Oñatiko Odriozola biak dira
ondoan dabilzanak.

— Zeintzuk dira aurtengo
denboraldirako dituzun
asmo eta helburuak?

— Aurtengo denboral-
dian, estatuko proba guztiak
egin nahi ditut. Iaz, ia den-
boraldi osoan Belgika eta
Holandako klasikak korritzen
ibili nintzen eta horiek ez
dira niretzako probarik ego-
kienak. Nireak, egun gutxi-
tako karrerak dira eta horie-
tan ibili nahi dut aurten. Pasa
den denboraldian Valles Mi-
neroseko erregularitate-saria
besterik ez dut irabazi, eta
hori behintzat hobetuko du-
dalakoan nago.

“
Futboleko eta saskibaloian bezala
behar genuke atzerritarren kontuan”

Ehiza-garaian ikusiezina garaile

Zuhaitzak hostoak galtzen dituzten garaia heltzen denean, ehiztariek hego-haizearen zain izaten dira. Duela urte batzuetara arte, inolako eragozpen barik egin izan dute ehizan. Azken urteotan, ordea, animaliek bizitzeko duten eskubidearen alde borrokan ari dira ekologistak. Ondorioz, udazkenarekin batera, ehiztari eta ekologisten arteko guda zabala iristen da.

Urriaren 12an hasi eta azaroaren bukaera arte, legeak ezarritako epearen barruan, Arrasateko 1.400 ehiztariek eskupeta kartu-txoekin kargatu eta hegaztiak tirokatzeko aukera izango dute. Dena dela, Leintz Ehiza eta Arrantza Elkarte-koek diotenez, 1.400 horietatik, erdia inguru omen dira ehizan ibiltzen direnak, "jende askok, eskupeta edukitzeko beste ezertarako ez bait du ateratzen lizentzia".

Ehiza-egunak, normalean goizean goiz hasten dira ehiztariarentzat: etxeko ohe beroaren goxotasuna alde batera utzi, eskupeta hartu eta mendi aldera abiatzen dira. Mendian, denboraldia hasi aurretik prestatutako ehiz postuetan, hegaztien zelatan jartzen dira. Hegazti-rik agertzen bada, ehiztariak tirokatu egingo du. Trebetasuna eta zortea izanez gero, etxera uso edota birigarro batzuekin bueltatu ahal

izango da; bestela, hamarretakoa eta zaletasun bera dutenekin izandako solasaldiekin konformatu behar.

Ehiztaria versus ekologista

Horrela esanda, badirudi ehiza zaletasun huts bat



Birigarroa eta usoa bezalako hegaztiak ehizatu daitezke

bestarik ez dela. Errealitatea bestelakoa da, ordea. Ehiztariak ehiza denbora-pasatzat duten moduan, ekologistek, gaurko gizartean naturaren aurkako ekintzat daukate eta ehiztariak naturaren erailtzat. Bi eritzien arteko eztabaida eskubideetan oinarritzen da. Ehiztariak, beren alde, mendeetako ohitura, legearen legitimizazioa eta ehizan egiteagatik ordaintzen dituzten kuotak aipatzen dituzte. Ekologistek, aldiz, ehiztariak akabatzen dituzten animaliak bizirik ikusteko eskubidea aldarrikatzen dute bereziki.

Aipatutakoak ez dira ehiztari eta ekologisten artean sortzen diren eztabaida-gune bakarrak. Ehiztariak beren burua ekologistek baino ekologistagotzat daukate. "Animalien ugaltzeaz -diote ehiztariak-, gu beste inor ez da arduratzen. Orain arte egin ditugun errepoplazioengatik Udalak lautik batean lagundu digu bakarrik, eta beste instituzioek batere ez. Gainera, ez gara bakarrik animalien ugaltzeaz arduratzen, beraiantzat inguru ego-kia prestatzeaz ere bai. Esaterako, behin baino gehiagotan, eperra eta faisananaren hedapenari laguntzeko garia ere in izan dugu, horientzat komenigarria da eta. Guk ez dugu natura akabatzen, inguruko lantegiek eta zikinak bai".

Lantegi eta zaborrek egiten dituzten kalteak ukatu barik, ekologistek animalien ugalketa horiei buruz duten eritzia ez da batere ona. Alde batetik, ekologistentzat animaliak ugaltzeak ez du zentzurik, helburua gero animaliak akabatzea bada; bestaldetik, errepoplazioak behar diren bezala ez direla egiten ere esaten dute. Zentzu horretan, gogora daiteke Bedo-

ñian orain bi urte untxiak eta faisanak askatu zituztela. Harrez gero, baserritarren ahotik makina bat kexu entzun dira, untxi eta faisanez baratzetan kalte ugari egin dituztelako.

“Ehiztarien azterketa”

Ekologistak animalien bizitzaren alde egin-dako lanak eragina izan du bai ehiztarien baitan baita Administrazioan ere. Gehienak berean jarraitzen badute ere, ekologistek egin-dako konzientziatze-kanpainen ondorioz, ehiztari batzuek eskupeta eta kartutxoak alde batera uzteko erabakia hartu dute.

Bestalde, Administrazioa, batzuek eta besteek egin-dako kexuen ondorioz



Ekologistek, den bezalakoa ikusi nahi dute natura

eta ikusirik arazoa hedatzen ari zela, nola edo hala guda horretan sartzera behartuta ikusi da. Oraingoaz, Udalerri

batzuek beren lurretan animaliak babesteko egin dutenaz gain, Administrazioak hartu duen neurri bakarra,

“Ehiztariaren azterketa” deitzen dena izan da. Hau da, ehizarako baimena atera nahi duen edonork azterketa gainditu beharko du. Neurri honek ez du balio izan arazoaren alde bietan daudenak elkarganatzeko. Ehiztariak printzipioz ez dute gaizki ikusten, baina beraien ustez sarriago egin beharko litzateke eta ez urtean behin. Ekologistek, berriz, ez diote aurrerapausurik somatzen azterketari, lehen zeuden lizentziak ez dituelako eragozten.

Administrazioak ez daki, ezin du edo ez dio arazori irtenbiderik eman nahi; ehiztari eta ekologistek, amorerik eman gabe, batzuek besteak errendarazi nahi dituzte... Argi dago, luzerako guda dugu, beraz.

Ongietorri eguna

Udazkenero legez, azken urteotakoetan behintzat, bailarako ekologistek ehizaren aurkako kanpaina bateratuari ekingo diote aurten ere. Kanpaina horren barruan antolatzen diren ekintzak desberdinak dira, baina, guztien artean, bada bat ehiztari eta ekologistak aurrez aurre jartzen dituen: “Hegaztiei ongi-etorria” deitutakoa, hain zuzen.

Ekintza hori burutzen den egunean, bailarako ekologistak, berek bakarrik dakiten toki batean, egun eta ordu jakin batean biltzen dira. Denek batera, ehiz postuen inguruetara joaten dira: etxafleroak jaurti, globoak askatu eta ahal duten zarata handiena ateratzeko. Ekologisten ekintza hori probokaziotzat hartzen dute ehiztariak, une horietan izugarrizko tentsio-giroa sortzen delarik. Oraindik ez da ezer gertatu, baina ikusirik nork bere jarrerari bero eta sutsu eusten diola, ez litzateke arraroa izango aurtengo udazkenean inork nahi ez duen zerbait gertatzea.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 Tfnoa: ARRASATE 79 89 89

**Central Jet
Euskal Air
91-92
denboraldia**



Raul Moreno
16 urteko arrasatearra.
Antolatzailea.




Aitor Saez de Viteri
23 urteko gasteiztarra.
Antolatzailea.



Xabier Urtubi
19 urteko arrasatearra.
Antolatzailea.




Jorge Fernandez
19 urteko gasteiztarra.
Eskolta.




Iker Zubiria
19 urteko oiñatiarra.
Eskolta.




Lander Errasti
23 urteko arrasatearra.
Hegalekoa.



Iban Fdz. Arroiabe
22 urteko arrasatearra.
Hegalekoa.




Andres Gutierrez
17 urteko aretxabaletarra.
Hegalekoa.




Iñigo Aierbe
23 urteko urretxuarra.
Hegaleko pibota.



Igor Urisabel
18 urteko bergararra.
Pibota.




Jose Ramon Garai
24 urteko arrasatearra.
Pibota.



Gerardo Mondragon
21 urteko arrasatearra.
Pibota.



Jose Miguel Garetxana
Gasteiztarra. Entrenatzailea-
ren laguntzailea.




Txus Brizuela
Gasteiztarra.
Entrenatzailea.

PODIUMA

**J. PABLO
BALERDI**

**Maratoia
gustokoen**



Duela zortzi urte hasi zen Juan Pablo Balerdi korrika egiten. Berandukoa du, beraz, zaletasuna. *"Lanetik irten eta zerbait egiteagatik hasi nintzen korrika. Poliki-poliki gustoa hartu nion eta kross herrikoietan parte hartzen hasi nintzen"*. Bere lehenengo krossa 83an korritu zuen. Orduetik, asko jaitsi omen da era horretako probetan parte hartzen duen jendearen kopurua. *"Orain urte batzuk izugarrizko jendetza biltzen zen, gaur betikoak egoten gara. Alde batetik, moda pasatu egin delako gertatu da beherakada hori, baina bestetik, oso gogorra ere bada eta horrek jende asko bota du atzera"*.

Egunero-egunero egiten du korrika. Astegunetan 15 kilometro egiten ditu *"Eskoriatzara edo Aramaio-ra gehienetan"*. Igandetan berriz, Osintxutik joan-etorria egin ohi du, 32 bat kilometro gutzira. Korrika egiteaz gain, ez du aparteko prestakuntzarik egiten. *"Txikiteroa eta erretzailera izana naitz, baina orain ez dut ez bata eta ez bestea egiten. Bestela, ez diot prestakuntzari garrantzi gehiegirik ematen"*.

Gustokoen duen proba, maratota da. *"Korrikalariak bere buruarekin*

duen erronka bat da. Behobia-Donostia eta Arrasate-Oñati lasterketak ere oso politak dira, baina maratoia korritzea beste gauza bat da". Maratoiarentzako duen miresmen honek mundu zabaleko hainbat tokitara eramandu du Juan Pablo. Duela sei urte Atenasekoa egin zuen, duela hiru Palmakoa, iaz New Yorkekoa eta aurtun Bordelekoa.

Arrasaten bera bezala ibiltzen den talde polita dago, baina ez dute elkarte bezala antolatzekeo asmorik. *"Ez dago horren beharrik. Probaren bat dagoenean korritu, bakoitzak nahi eta ahal duenean enreñatu eta horrela ibiltzen gara gu"*.

Igandean Donostian korrituko den maratoiaren zain dago Juan Pablo. 3 ordu eta 28 minututako marka hobetzea gustatuko litzaioke, baina ez bada hori gertatzen, berdin da. *"Maratoian, gusiorabukatzeta da garrantzitsuen"*.

◆ **Gazteak ondo, nagusiak ez hainbeste**

Arrasateko pilotari gazteek nagusiek baino emaitza hobeak lortu dituzte Aloña-Mendikoen aurka jokaturako partiduetan. Larunbat goizean, Gazteen taldeko hiru bikoteek lortu zituzten garaipenak (18-3 alebinek eta 18-12 infantil eta kadeteek).

Asteartera atzeratutako partiduetan, berriz, jubenilek bakarrik lortu zuten irabaztea Oñatin (22-17 jubeniletan, 12-22 juniorretan eta 19-22 seniorretan).

◆ **Astehenean, piszina irekiko**

Berrikuntza-lanak bukatu ondoren, astehenean zabalduko dira Musakolako barruko piszinak. Piszinak hiru astetan egon dira itxita eta bitartean Aretxabaletakoak erabili ahal izan dituzte Aukeako bazkideek.

◆ **Hasi da igerilarien denboraldia**

Igeri-taldeak jakin erazi duenez, hasi da 91-92 denboraldia. Horretaz gain, Igeri-Taldeko batzordeko bi kidek dimisioa aurkeztu dutenez, bazkideen laguntza eskatu du zuzendaritzak.

◆ **Jon Igoa Eibarrera**

Oraindik erabakia hartu gabe duen arren, badirudi Igoa Eibarrera itzuliko dela. Bere asmoa Errealean jarraitzea zen, baina dituen aukera-falten aurrean, nahiago izan du Eibarren jokatu Errealean gelditu egon baino.

◆ **Emakumeak berriro irabazle**

Mondrako neskek gogor hasi dute denboraldia, joan den astean Lesakan jokaturako partiduan 0-2 irabazi zuten eta. Golegileak Ana eta Saioa izan ziren, baina garaipenaren meritua talde osoarena izan zen. Arrasatearrek datoren astean Eibar taldearen aurka jokatuko dute Atxabalpen.



**ARANBURU
COTEMAR**

Garraio-agentzia



Zaldisepe, 3 ARRASATE Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENZA**


Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07



Hamazazpi arrasatear Donostiako Maratoira

Datorren igandean Donostiako Maratoiaren edizio berri bat burutuko da. Jakina denez, bailarako korrikalari askorentzat maratoi hori urteroko zita bihurtu da, marka onak egiteko oso aproposa bait da. Bailarako gainontzeko herrietatik zenbat eta nortzuk joango diren ez dakigu, baina Arrasate eta Aretxabaletatik bai. Ondorengoak dira:

- Crispin Baldezate
- Jose Luis Arroiabe
- Jose Ramon Belastegi
- Joseba Ugalde
- Jose Maria Larrañaga
- Jose Errasti
- Pedro Zalama
- Jose Maria Ansoategi
- Daniel Zubillaga
- Eukeni Olabarrieta
- Ugarte anaiak
- Cesar Díez
- Jabier Zubiaga
- Conrado Paul
- Martin Nafarrate
- Juan Pablo Balerdi
- Ramón Jausoro
- Jesus Lonbide
- Alfonso Luelmo
- Uribesalgo.



Iñurrategitarrek Makalu gainean

Felix Iñurrategi, Alberto Iñurrategi aretxabaletarrak eta Felipe Uriarte pasaitarrak, pasa den irailaren 30ean Makalu mendiko gailurrera igotzea lortu zuten, hau da, 8.463 metro-tara. Makalu munduko bostgarren mendi altuena da, Himalaya-yako zailenatarikoa. Hasiera batean, aretxabaletarrek igoera ohizko bidetik egiteko asmoa zeukaten, baina ikusirik elurra- ren egoera ez zela oso lagungarria, bidez aldatzea erabaki zuten. Erabaki zuzena, dudarik ez!



Alex Zubia bueltan

Shingma Parbat-era igotzeko asmoz atera zen azpeitiar espedizioak huts egin du. Espedizioan, Alex Zubia arrasatearra ere bazegoen gailurrera iristeko asmoz. Baina eguraldiaren egoerak ez die lagundu eta azkenean etsi egin behar. Berdin dio, azken finean garrantzitsuena itzultzea da eta.

Hurrengo partidua

Jesus Izagirrek, Mondrako entrenatzaileak, talde erdia Ospitalera eramateko moduan dauka: Txosa, belarriko infekzio bat dela eta, gutxienez hiru astetarako baja izango da. Patxi Lafuentek, zuntz-etendura izan zuen igandeko partiduan eta bi astetarako jai dauka. Hori gutxi balitz, astean zehar eta katarroaren ondorioz, Urbina eta Gaizkak ezin izan dute entrenatu. Gainera, Inaxiok denboraldiari definitiboki agur esan dio, lehen lotgailu edo ligamentuengatik joan bazen kirofanora, orain meniskoagatik joan beharko du.

Beraz, argi dago datorren asteko partidua oso zaila izango dela arrasatearrentzat, ez bakarrik taldean baja ugari izango direlako, aurrean izango den taldea ere, nolana hikoia ez delako: Pasaia, hain zuzen. Pasaitarrak oso denboraldi ona egiten ari dira. Saillkapenari begirada bat emanez gero, zazpi puntu eta positibo bat daukatela ikus daiteke. Gainera, taldea sortu zeneko berrogeitamargarren urteurrena da, eta datorren asteko partidua hori ospatzeko aprobetxatu nahi dute. Argi dago, beraz, inoiz baino gehiago saiatuko direla garaipena eskuratu nahian.

Mondrako entrenatzaileak zioenez, zailtasun handiak izango dituzte partidu horretatik zerbait positiboa ekartzeko. Hori bai, saiatu saiatuko dira.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12 ARETXABALETA

ALTUNA

**Lurrindegia
bisutegia
drogeria**

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

Batuta

Nestor Maidagan

Etxetik datorri Nestorri musika-zaletasuna. Bere amama pianojolea izan zen eta aitak parrokiako koruan abesten du. "Gaztetan oso tiple ona izan omen zen". Anai-arrebek ere izan dute, asko ala gutxi, musikarekin harremana.

Zortzi urterekin hasi zen Nestor solfeoan. Jesusi Madinabeitiak erakutsi zion lehenengo pentagramak irakurtzen. Beranduago, Arrasate Musikal sortu zenean, klarinetea ikasteari ekin eta bertako orkestran sartu zen. Orkestran ibili zen garaiaz oroitzen onak ditu. "Taldea bikaina osatzen genuen. Entsaioak oso gogorak izaten ziren, ostiral, larunbat eta igandetan asteburu askotan, baina merezi zuen. Nire lagun onenetakoak orkestran egindakoak dira". Arrasate Musikaleko orkestrak ospe handia lortu zuen urte haietan eta horren ondorioz European zehar kontzertuak eskaintzeko aukera izan zuten. "London, Paris, Edinburgo eta beste hainbat toki ezagutzeko aukera izan genuen. Gaztez osatutako estatuko orkestra onena ginenez, gonbite



asko jasotzen genituen".

Orkestran hamaika urte zeramatzala, bertan jarraitu ala Berakatz Band musika taldean sartzearen artean aukeratu beharrean aurkitu zen. "Bietan batera ibiltzea ezinezkoa zen. Azkenean, Berakatz Band-en gelditu nintzen saxofoia jotzen".

Festarik festa ibiltzen da Nestor bere taldearekin, uda partean batez ere. "Oso gogorra da gure bizimodua. Jotzen eta abesten gustora ibiltzen gara, baina erromerien aurretik eta ondoren lan asko izaten da eta horrek erre egiten du". Gainera, duela urte batzuetatik hona, erromeri giroa galdu egin dela iruditzen zaio. "Orain taberna guztietan dago musika eta jendeak nahiago izaten du tabernetan egon plaza erdian baino. Gernika aldean eta Arabako herri txiki batzuetan ez bada, ez da ia erromeri girorik gelditzen".

"Toki gutxi batzuetan ez bada, ez da ia erromeri girorik gelditzen"

Txio txioak

Capilla Peñafloredaren kontzertua S. Juan Parrokian

Ostiralean, hilak 11, Capilla Peñafloreda taldearen kontzertua izango da S. Juan Parrokian, iluntzeko 8etan. Capilla Peñafloreda 1985ean sortu zen Jon Bagues musikologoak bultzaturik, batez ere Barroko garaiko musika aztertzeko eta plazaratzeko helburuarekin. Zentzu honetan, Pedro de Tafalla, Jose de Baquedano, Juan de Gamarra eta beste musikagile batzuen argitaragabeko lanak jorratu ditu.

Capilla Peñafloreda taldea antzerki-musikaren arloan ere ibilia da. Besteak beste, *Tianttaka* taldeak Pergolessiren *Flaminio* opera aurkeztu zuenean izandako partehartzea eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteari buruzko ikuskizuna dira aipagarrienak arlo honetan.

Goikobalu abesbatzak aurkeztu eta Udalaren eta Lan Kide Aurrezkiaren laguntza duen kontzertu honek bi zati izango ditu eta bakoitzean zazpi lan eskainiko dira. Bigarrenean, batez ere Juan García de Salazar-en lanekin Capilla Peñafloredak grabatu berri duen diskaren abestiak emango dira. Zuzendaria Jon Bagues da eta organujoleak Jabier Sarasua eta Jabier Basozabal.



Jon Bagues

PUB HAIZEA



ENARA
OSAGIRRIAK


Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate

Ikasturte berriaren aurrean

Irakaskuntzan, dagoeneko urte bete darabagu geldiune batean murgildurik. Honen arrazoia —jakina den bezala— aurreko Gobernua osatzeko pasazuten denbora izan da, batez ere; eta geroztik hirukoitzaren porrota eta Gobernu berriaren osaketa.

Azpitarratzekoa da gobernu hau eratzeko PNV-PSOE-EEren artean izandako elkarriketetan inork ez zuela Hezkuntza Sailaz arduratu nahi; badirudi, Hezkuntzarekin zerikusirik duena ez zaiela gehiegi interesatzen.

Bitartean, aspaldiko arazo nagusiak berean jarrai-



tzen dute: Euskal Eskola Publikoaren Legea, Erreforma, Unibertsitatearen egoera...

Ez dakit aurreko PNV-PSOE gobernuak hartutako konpromezuak mantentzeko asmorik duen orainoak, hain zuzen ere, Euskal Eskola Publikoaren

Legea bi urtetako epe barruan egitea. Nire ustetan, hau beharrezkoa da eskola eta ikastolentzat, eta hauen artean gaurregun ematen den kompetibitate, haur gutxitzea dela eta, guztiz negatibotzat jotzen dudalako.

Bestalde, egun hauetan egunkarietan Hezkuntza

Kontseilari berriak egindako deklarazioen arabera, beldur naiz Gobernuko hizkuntz politikak atzerakada ekarriko ote duen ikastetxeetara, zeren eta Buesak dioenez Elkarte Autonomoko euskalduntze-prozesua azkarregi omen doa. Badirudi kontseilari honek irakaskuntzako UGT-ko euskararen aurkako sektore gogorrena ordezkatu eta defendatu nahi duela. Honela balitz, ondorio okerrrenak irakaskuntza publikoko euskalduntze-prozesuak jasoko lituzke, baina ikastoletan ere eragina izango luke, batez ere, arlo ekonomikoan. Beraz, adi egon beharko dugu politika honi aurre egiteko.

ARRATE LANDA

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko galtz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Erritmo biologikoak eta ordutegien aldaketak

Orain dela urte batzuk hasita, garai honetan, ordutegia aldatu egiten digute. Neurri honetara bultzatzen duten arrazoiak, funtsean, ekonomikoak direla esan genezake, eta adituek diotenez, energia ugari aurreratzen omen da neurri honekin.

Baina era berean, neurri honen aurkako iritziak ere askotan entzuten ditugu, dirudenez ez bait da egokia giza gorputzarentzat. Unibertso bizitzan erritmoa derrigorrezkoa da; izan ere, unibertsoaren egitura guztiak erritmikoak dira, izaki biziak barne direlarik.


Osasuna eta gaixotasuna

aurkako indarren menpe daude, eta hauek berauek dira naturaren erritmoak sortzen dituztenak.

Erritmoetan oinarritutako oreka hau osasunerako derrigorrezkoa dela antzina-antzinatik daki gizakiak.

Baina giza gorputzak erritmo ezberdinak dituela ere argitu beharra dago: eguneroko edo zirkadiano izenekoak, asteroko edo zirkaseptianoak, urtarotakoak...

Guztietan garrantzitsuenak, egunerokoak edo zirkasianoak ditugu. Errai askoren funtzionamendua, hormonon jariora, aktibitate fisiko eta



intelektuala... hau da, gure funtzioak, egunean zehar aldatu egiten dira, ez bait dira uniformeak, eta aktibitate maximoa eta minimoa agertzen zaizkigu.

Dirudenez, aipaturiko erritmoen erregulazioan faktore garrantzitsuena hau da: eguzkiaren argitasuna

zein erretinaren bitartez helzen zaigun buru-muinera.

Horrela, eguzkiaren argitasunik gabe dauden pertsonak erritmo hauek nabarmenki aldatuta dituzte, eta adituek diotenez E.E.E-Europako Ekonomi Elkartean egiten diren ordutegi-aldaketek nolabait ere aldatu egiten dituzte erritmo horiek, neurri txikiagoan bada ere.

Dena den, gaur egun erritmo hauei buruz ez daki gu oraindik gehiegi, ez daki gu argia bezalako kanpofaktoreak diren ala barruko ordulari biologikoa den gure funtzioak erregulatzen dituen. Orain arte egindako ikerketek ez dute oraindik guzti hau zehaztu.

EUKENI ETA ARANTXA





Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

**Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58**



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Gauaren argitan

Gutxienez berrogeitamar metrotara entzungo litzateke "Mirande"neko musika burrundaratsua erradio horrek marrazten duen zirkulu barruan beste taberna ugari norgheia-goka egingo ez baliote; eta tartean txarangak gora eta behera, jendearen iskanbila, txapliguak eta era guztietako zaratotsak nahastuko ez balira.

Mutila eta neska kalera irten dira nor bere etxetik, presaka, afaltzeko ia astirik hartu gabe, beranduegi baitabilta biak dagozkien koadrilekin "Mirande"nean topo egiteko.

Tabernara bidean tril egin dute biek eta bata bestearen alboan ibili dituzte —elkarren presentiaz oharturik baina deusik esan gabe— berrogei bat metro, tarte hau neskak ilea atontzen eta mutilak bere pajaritari azken ikuttua ematen igaro dutelarik.

Taberna jendez gainezka, sartu ala ez sartu geratu dira biak ate aurrean,



eta egoera hau aitzaki, elkarrizketari ekiteko: "Zu ere berandu, ala?" "Hau jendetza!" "Zigarro bat nahi?" eta "Ez dakit zer egiten gabiltzan hemen, goazen hortik zehar trago bat hartzen".

Eta horrela hasi da bikotea tabernarik taberna gauean gero eta gehiago

barneratzen, "Mirande"nean loturiko berrogeitamar metrotako sokak marrazten duen zirkulu barruan hara eta hona.

Geroago, goizaldean, meza hastear zela eta, municipal bikote batek elizaren arkupetatik bota ditu neska eta mutila. Eguzkiaren argitan jada, "Bueno, agur" esan eta nor

bere etxera itzuli da.

Neska komunera abiatu da botaka egitera etxean sartuaz batera. Gero, soinekoa erantzi eta ohe gainean geratu da seko lo.

Mutilak dutxa bat hartu du katilukada zopa bero irentsi aurretik. Ondoren bere logelan sartu da, kontraleihoak itxi eta, ilunpetan, diskojogailua martxan jarri du.

Gorputzari izara artean labantzen utzi dio, ahoz gora etzanda eta begizabali geratuz. Baina poliki-poliki loak hartu du, berekin eramandako bafleen musika-isuri geldoa lagun.



DIEGO MARTIARTU

BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean



Cercas bajas, 34 GASTEIZ

MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 50

ETXEBIZITZAK

- Konpartitutako pisu alokatuan logelarik libre badaukazu, dei egin 77 06 90 tfnora.
- Bergarako bi neska pisua osatu nahi dute Irunean. Tfnoa: 76 11 11.
- Ikasle pisua aurkitu nahi nuke Donostian. Tfnoa: 79 99 82 (Goizez). Miren.
- Bi ikasle pisu bila dabilta Donostian. Dei egin 79 53 82 tfnora.ra bazkalordu edo afalorduetan.
- Ergulnen etxebizitza salgai. Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- Bi ikasle behar dira Donostian pisua osatzeko. Dei egin 79 55 23 (Santi) edo 74 13 07 (Jon).
- Etxebizitza alokatuko nuke Aretxabaletan ala Eskoriatzan. Tfnoa: 79 59 60. Josu.
- Zarugalde 3an garaje-plaza alokatzen da. Tfnoa: 79 12 35.
- Bilbon ikasle pisua osatu nahi nuke. Tfnoa: 79 24 51. Nerea.
- Hiru langile gara Arrasaten alokatzeko pisu baten bila. Tfnoa: 79 51 49.

LANA

- Klase partikularrak ematen dira: euskara, gaztelania eta inglesa. Tfnoa: 77 04 98.
- Itzulpen eta Interpretari lanetarako kolaboratzaileak behar dira. Edozein hizkuntza. Tfnoa: 77 04 98.
- Emakumea etxeetan lan egiteko prest. Tfnoa: 79 84 66.
- Alemanezko klase partikularrak ematen ditut. Tfnoa: 79 78 75.

- Lanak makinaz pasatzen dira. Tfnoa: 79 78 75.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 58 80.
- Ingelesezko klase partikularrak ematen dira. Talde murriztuak. Dei egin arratsaldez 77 05 77 tfnora.
- Emakumea edozein lan egiteko prest: gaixoak zaindu, garbiketak, umeak zaindu, etxeko lanak egin... Tfnoa: 77 07 12.
- Emakume euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 91 30.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nitzuke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnora.
- Bestaldeko irakasle batek frantseseko klase partikularrak ematen ditu. Dei egin bazkalorduetan 79 20 24 tfnora.
- OHoko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 19 19.
- Klase partikularrak ematen dira (fisika, kimika eta matematikak). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- Emakume euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 07 73.

SALEROSKETAK

- Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua, estra batzuk ere baditu. 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- Paseoko bizikleta bi salgai ditut 15.000 PTA.tan bakoitza. Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Ur-berogailua egoera onean salgai. Tfnoa: 79 59 72.
- Adria TY GRA karabana (4,10 m.) salgai. Lau pertsonarentzako tokia, hozkailua etab. Garajea edukitakoa. Tfnoa: 79 93 06.
- la berria den Atari 2600 kontsola bideoa salgai, 160 joko ditu. Tfnoa: 78 31 51.

DENETARIK

- 25 urtetako neska batek saloiko dantzen hastapen-ikastaroan parte hartzeko mutil bat behar du. Tfnoa: 77 01 93.
- Ostiralean giltza batzuk galdu nituen Nafarroako Etorbide eta Zaldibarko pilotalekua artean. Topatu badituzu dei egin mesedez 79 37 63 tfnora. Pilar Arana.
- Egunero Bilbora (Laloara) joateko kotxea behar dut, gastuak erdibana. Dei egin gaueko 11etatik aurrera 79 66 99 tfnora.
- Maritxu Kajo! gauean Gestoraren tabernan lanean nengoela txaketa beltz bat (forro gabekoa) galdu nuen. Zuk hartu bazenuen dei egin mesedez 77 09 49 tfnora.

ARRASATEN HILDAKOAK

Fulgencio Larrañaga Altube,
urriaren 1ean. 69 urte.

Andres Garai Santos,
urriaren 5ean. 75 urte.

Aurora Andres Carmona,
urriaren 6an. 84 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnos: 77 08 15

Zer nahiago?

Maria Jose Unzueta Zabaleta lurrindegikoa



- Bostehunekoa, txanpona ala billetea? Txanpona, papera baino garbiagoa da.
- Kolonia ala perfumea? Biak, udan kolonia eta neguan perfumea.
- Eratzunak ala belarritakoak? Biak jazten ditut.
- Barruko arropa, beltza ala gorria? Zuria!
- Lo, bakarrik ala senarrarekin? Bakarrik.
- Larrosak ala krabelinak? Larrosak.
- Dutzatu ala bainatu? Dutzatu, eta urtean behin, igande arratsaldean denbora hartuta, bainatu.
- Errezatu, arima salbatzeko ala bizitzako desioak betetzeko? Sinismena dudanez, arima salbatzeko.
- Poztu, zerk gehiago? Semeak ikasketak bukatzeak ala Lotoan seikoa asmatzeak? Semearena hobeto.
- Eskaleei, txanpon batzuk ala ogitartekoa? Ogitartekoa.
- Alkatetzan, Xabier Zubizarreta ala Nekane Iglesias? Xabier Zubizarreta.
- Maritxu ala haratuzteak? Haratuzteak.
- Oporrak lagunekin ala familiarekin? Orain artean familiarekin.
- Besaide ala Udalaitez? Udalaitez.
- DV ala Egin? DV.
- Urrea ala zilarra? Urrea.
- Paperezko painueloak ala zetazkoak? Zetazkoak.
- Txutxumutxuak telefonoz ala belarrira? Kalean lagunartean kafea hartzen eta horrela.
- Autonomia ala Independentzia? Politagoa independentzia. litzateke, baina ez dakit oraindik gertu gauden edo ez.
- Kafea ala tea? Bata ere ez, kamamila.


Bertsotan

"Udalaitzeko eguna"

Larunbat hontan ospatzen da Udalaitezko eguna arrasatear mendi zaleok hauxe da poza duguna, haizean dantzez, txorien kantuz horixe askatasuna guztiz erraza egingo zaigu maldan gorako jarduna esan dezaten kaletar hoiek hau mendi zaletasuna!

Mendian hil ta desagertuak nahiko nituzke omendu nahiz ta gorputzez hemen ez egon arimak hor jarraitzen du ahaztu gabe mendizaleei agur bero bat zuzendu. Zuen mendiko zaletasuna ahal den neurrian mantendu larunbatean zain egongo naiz tontorretik ez aldendu.

MAIDER OSA



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

URKULUn

URTITXO

Edari eta bokatak

(Urtegiaren ondoan)



Besaide, 1955

L

opeztarrek eta Aranzabaldarrek bi gauza zituzten amankomunean: mendizale porrokatuak izateaz gain, auzoko ziren, Musakola kaleko

8an bizi ziren. Bide desberdinak hartuta askotan, bailarako mendizaleen elkarleku esanguratsuenetan egiten zuten topo: Udalaiz, Murugain, S. Adrian, S. Kristobal, Kurtzebarri, etabar luzean.

1955eko urriko 30 hura berezia zen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa elkartzen zituen Besaiden, Alpeetan hildako lau mendizale euskaldunen omenez oroitarri berria inauguratuko zuen Euskal Herriko Mendizaleen Elkarteak.

Eguna ez zen batere ona atera. Euria ari zuen gogotik. Ume txikiak etxean utzi eta zirak, gabardinak, txapelak eta otartekoak aldean hartuz, Udalarako bideari ekin zioten Muxibar tabernatik gora.

Jende ugari bildu zen Besaiden. Euskal Herri guztiko mendizaleak. Euria goian behean zen, baina mendizaleak kikildu ez. Meza entzun eta inaugurazioaren gainerako ekitaldiak ikusi eta gero, argazkia monumentuaren aurrean.

Atzean, zutik, aitak. Ezkerrean, Jose Mari Lopez, urte luzetan Arrasateko bake-epailea izango zena. Haren ondoan, Julian Aranzabal, soinu-jole izandakoa eta Cerrajerako langilea. Erdian, zutik, neskak. Ezkerretik, Amparo eta Sagrario Lopez ahizpak, Begoña Aranzabalekin batera. Belauniko, Juan Bautista Aranzabal, Anton eta Migel Angel Lopez anaiekin. Denak Arrasaten bizi dira oraindik, Juan Bautista eta Anton ezik. Lehena Oñatira ezkondu zen eta Aiton, musulman bihurtua, Granadan dago.

Itzulera ez zen gozoa izan. Besaidetik Garagartzarantz abiatu ziren, baina euria zela eta, sekulako lokatz artean ibili behar.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96

Telefax: 793412

6 IGANDEA

9.30etan, **Mondragol**. Pasajes-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena.



7 ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albiste-emanaldia.

9.15etan, **Mondra Sport**. Arrasateko Kirol-munduaren errepasua.

8 ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Egunean zehar jasotako berriak.

9.15. **Erreportaiak**. Aste honetan, batetik Euskal liburu eta diska azoka, eta bestetik igandean Aretxabaletan egingo den Haur Dantzari Eguna izango ditugu aztergai.



9 ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albistegia.

9.15. **Txotxongiloak**.

10 OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Albistegia.

11 OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Egunean zehar bildutako albiste-bilduma.

9.15etan, **Erretratoa**. J.R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Joxe Mari Astigarraga, San Juan Bataiatzailea elizako parrokoa.




Onduline TXOMIN HERIZ

URALITA

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi-zerbitzua

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON


J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

HAURTXOA

Arrasate Pasealekua, 4
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

Pasajes-Mondra

Igandean, 9.30etan. Datorren igandean ere ikusgai izango duzue Mondragol saioa, 9.30etan hasita. Honako honetan, larunbat arratsaldean Molinaoko zelaian jokatu den Pasajes-Mondra partiduen laburpen zabala eskainiko dizuegu. Hurrengo hiruzpalau partiduetan faltan somatuko dugu 3. mailako pitxitxia, Txosa. Bera sendatzen den bitartean, ea bere taldekideek gol sorta ederrak ekartzen dizkiguten Mondragol saiora. Guk filmatu eta zuek ikusi. Hala bedi!



Telebegi

Isildu da aurtengoz Maritxuren jai-oihar-tzuna ARRASATEN. Urtebetez bere kajoira joan da berriro txikite-roen ama.

Atzera begiratzean, ordea, guztiok erreku-peratzen ditugu pasa den ostiralean bizi izandako momentu eta sentsazioak.

Fotogramak bezala.

Ni ere hasten naiz gogoratzen eta zera somatzen dut, ez dakit, trajea jaztearen asuntok inoiz baino grazia gutxiago egin didala.

Zergatik? Auskalo, ez dakit, akaso azken boladan sarriegi tokatu zaidalako korbata bat lepoan paratzea.

Non? ATBn.

Joan zaigu Maritxu, txikite-roen zaindaria, urtebetez bere kajoira.

Eta aurtengoan, niri behintzat galdera bat utzi dit erregalu bezala.

ATBn traje eta korbata gehiegi ez ote dagoen...

JON ANDUEZA

Telebelarri

◆ Kontzesioak egin behar izan genituen, baina ez programatikoak; bakoitza bere ideologiarekin, baina nolabaiteko batasunera iritsi ginen Udala gestionatzeko. Gaur egin dugu azken bilera lau urtetarako plangintza hiru alderdien artean egiteko".

"Mozio horren helburua gaizki egindako zerbait zigortzea da, beraz aukera hori planteatzea absurdua dela uste dut, oraindik ia ez dudalako astirik izan ezer gaizki egiteko".

Xabier Zubizarretak "Alkatearekin Berbetan" saioan.

Erreportaiak

Asteartean, 9.15etan. Honez gero jakingo duzuen bezala, asteartero-asteartero asteburuan gertatutako ekintzen inguruan prestatutako erreportaiak ematen ditugu ATBn. Eta datorren asteartean, hain zuzen, Garibai etorbideko Euskal Liburu eta Diska Azoka, eta igandean Aretxabaletan egingo den Haur Dantzari eguna izango ditugu aztergai. Ez ahaztu. 9.15etan.






ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Lan edo diru-kontuekin zerikusirik duten arazoekin tirabirak sor litezke. Gaizki ulerturen bat suertatuko zaizu lantokian. Saia zaitez garbi azaltzen zer den nahi duzuna. Finantzak hobera doaz.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Zeure ekonomia hobetzeko egun aproposak dituzu datozenak. Ideia aproposak izango dituzu handik eta hemendik diru-sarrerakoa lortzeko. Normalena baino makalago sentituko zara osasunari dagokionez.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Ipurtarin izaten jarraitzen duzu denera iritsi nahian. Ezertarako gogorik ez zaizu falta baina dirua hobeto administratzen hasi beharko zenuke marxa horretan jarraitzekotan. Bizipoza.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Baikor eta animoso ibiliko zara. Tirabiraren bat sor liteke nagusiarekin, baina berehala baretuko zarete. Beharbada lana lasai hartzen duzulako izango da. Jarraitu horrela.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Baliteke zure bizitzako amodioa aurkitzea. Maiteminduta bazaude berri, aurrera egiteko une aproposa duzu. Ekonomia arloan zuhur jokatzeko komeni zaizu galerarik izan ez dezazun.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Urrutiagi begiratzen duzu gaur egungo egoeratik ihes egin asmoz edo. Saia zaitez egunean egunekoa betetzen, lasaiago hartuko duzu bizimodua. Bidaiatzeak on egingo lizuke; baita parrandaxoren batek ere.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Azken momentuko lanak direla eta ez direla ohi baino esfortzu handiagoa eskatuko dizu lanak. Lasai ibil zaitez datorrena patxadaz hartzeko. Gustora sentituko zara lagunartean.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Proiektuak egiteko egun aproposak dituzu. Eskaintza interesgarriren bat egingo dizu gainera norbaitek. Maitasunak horretarako behar izango duzun inspirazioa emango dizu.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lagunak egiteko berezia zara Acuario eta horrelakoxea izaten jarraitzen duzu. Bidaiatzea eskaintzen badizute onartu eta zoaz. Negozioetarako momentu aproposa duzu oraingoa; etekinak izango dituzu.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Edozein eratako erabakiak hartu aurretik arretaz azter ezazu. Despistatu samar ibiliko zara eta baliteke gero damutuko zaizun erabakiren bat hartzea. Zeure azukre koxkorra gertuan izango duzu.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Ahal duzuna baino diru gehiago gastatzen ariko zara seguraski. Gastuak neurtzen edo lehentasunak markatzen hasi beharrean izango zara porrotik ez egiteko. Ezusteko egoerak izango dira.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Ez zara egoerak eta proposamenak besterik gabe onartzeko prest azalduko zure eritzia premiazkoa dela pentsatuko bait duzu. Ingurukoren batek zorte ona emango dizu. Gogor egin beharko duzu lan.



Patterncam


**EREDUAK,
MAKETAK ETA
KONTROL-TRESNERIA
CAD-CAM
BIDEZ**

Musakola auzoa, 26
Kataide Industrialdea, 15. pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxa: 77 06 06
ARRASATE

A N T Z E R K I A

Geroak
aurkezten du:

El amante de Lili Marlen



- **Urriak 12**
- **Amaia antzokian**
- **Gaueko 10.30etan**
- **Sarrera: 500 PTA**
Gazte-Txartelarekin: 300 PTA





HIRI ETA ESTATU BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Ecuenter. T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Cial. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOS**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edisson, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Camí d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonqueras**, Jonqueras, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nerviá**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabana**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umberto, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetana Ventalló, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4 Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Piza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genis Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafraanca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº. Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Val de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUNA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuyet Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge María, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárraga**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Melián, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubiding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - Nº. 3, Sor Angela de la Cruz, 24 - Nº. 4, Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Costada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25.8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Gelatafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparril, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torre del Mar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya. T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Peñora, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Díaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Villagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celedonio, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Halaigo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28. G. C. Loc. 10 - T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposita**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D 8. T. 974-6085 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-8002 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandía**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

- HIRI BARNEKO ZERBITZUA
- * Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)
- * Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)
- ESTATU BARNEKO ZERBITZUA
- * Gau eta egun
- NAZIOARTEKO ZERBITZUA
- * Courier zerbitzua
- * Aire-karga zerbitzua
- * Itzulpen zerbitzua

ARRASATE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62



-ko kide

-ko kide

INFORMAZIOA
900 300 400